



## 5 BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

#### Alarma Egoeraren 5. eguna. 2020ko martxoaren 20a, ostirala.

#### Osteguna hilak 19ko Kudeaketa / Ekintzak

#### ERAKUNDEEI EGINDAKO ESKAERAK ETA DAUDEN BEHARRAK

Udalak kale egoeran daudenentzat prestatutako Atano pilotalekuaren esperientzia martxan jarri da. 87 pertsona daude bertan.

Geure babes guztia funtziona dezan ardura dutenei. Eta ondo funtziona dezala. Gizarte Zerbitzuetako langileak dira zeregin horren ardura jaso dutenak, baita horretarako kontratatu direnak kudeatzeko ardura ere. Hemen ere Gizarte Zerbitzuetatik eskatu dituzten boluntarioak inplikatu dira. Ardura hori eska al dakieke? Ba al dute baliabide nahikorik? Instalazioek ahalbidetzen al dute? Gogo biziz desiratzen dugu hala izatea. Hala izatea behar dugu.

Hala ere, zalantzak ditugu galdera horiei emandako erantzunak baiezkoak izango ote diren. Ez dugu erakundeei kritika egiteko asmoz esaten. Une honetan norabide onean ari dira lanean. Baina funtzionatzen duenaren eta ez duenaren inguruan etengabe hausnartzera behartuta gaude. Beharrezkoa dena aldatzera. Ez dugu tarte handirik frogatzen mekanismoa aplikatzeko. Ezin dugu huts egin. Asko dago jokoan.

Horregatik, aurreratu nahi dugu zaila iruditzen zaigula herritar guztientzat planteatu diren osasun eta portaera jarraibideak betetzea hain pertsona kopuru handia elkartzean. Hain talde ugariaren harreman-dinamika behar bezala kudeatu ahal izatea, non bakarka eta entzierro-testuinguru batean egin behar baitute. Infekzio bat gertatuz gero, kolektibo osoa koarentenan jartzera behartzen baita ...

Derrigorrezkoa da zeregina agindu zaien langileei egunero iritzia eskatzea, gai horiek eta beste batzuk ebaluatzeko. Lagundu eta entzun.

Aterpe horretara sartzeko asmoz Atanora hurbildu eta, eskaintzen zitzaizen baliabidearen masifikazioa ikusita, atzera egin duten pertsonak ere ezagutzen ditugu. Adierazgarria da beldurra sartu izana.

Horregatik guztiagatik, orain funtzionatzen ari diren baliabideekin atal hau ez ixteko eskatzera ausartzen gara. 15-20 pertsonako taldeentzako espazio txikiagoak prestatzea aurreikusten jarraitzea, alegia. Orain dauden baliabideetatik kanpo jarraitzen dutenentzat eta, agian, orain Atanon kontzentratzen dena zerbait husteko. Badira hutsik dauden bizileku-baliabideak: hedabideetan irakurri genuen Aldundiak aterpetxeak eskaintzen zituela, ikasle-egoitzak, egoitzak, seminarioa ...

Egoera honek asko eskatzen die arduradun politikoei eta dituzten gaitasunik onenak atera eta aurrean duten erronkaren mailan daudela erakusteko unea da.

**Errenteriako** Udalak, bestalde, eskura jartzen du, asteburu honetatik aurrera, **udal aterpetxea**. Albiste ona da, baliabideak zabaltzeko aukera ematen duena.

**Irunen**, *Gurutze Gorriak* bidean dauden migratzaileentzako duen baliabidea, 100 plaza dituen,



## 5 BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

hutsik zegoen bart. Eta *Martindozeneko* baliabidean plaza libreak daude kaleko egoeran dauden pertsonentzat.

**Gosea.** Gure ustez, La Sirena eta Atano irekitzearekin batera, nabarmen murrizten dira alor honetan dauden gabeziak. Gaur Saretik egiten dugun banaketan egiaztatuko dugu. Hala ere, elikagaiak behar dituzten pertsonak daude oraindik. Baliabide hauetatik kanpo jarraitzen dutenak daude. Halaber, azken hilabeteetan, udal laguntzei esker, gela bat alokatu eta kaletik atera direnak ere badaude, 30 baino gehiago, hain zuzen ere. Pertsona horiek ere elikagaiak behar dituzte, eta ez dute dirurik horiek erosteko. Eta badaude, segur aski, Gizarte Zerbitzuak lokalizatuta dituzten beste batzuk.

Udal korporazioari **proposamena** egiten diogu. Auzo guztietan dauden kultur etxeak atondu. Aprobetxatu *Donostiako Zaintza Sarea* boluntario-sarea, laguntza behar duten adinekoei laguntzeko sortua, erosketa eramateko. Horrela, egun eta ordu jakin batzuk finka daitezke puntu horietan dagozkien janari poltsak jasotzeko. Udalak dagoeneko baditu kultur etxe bakoitzeko arduradunak, eta horiek arduratu beharko lirateke behar den denboraz irekitzeaz (gehienez ordubete nahikoa izango litzateke). Zaintza Sareko talde bakoitzak auzo horretako pertsonen zerrenda izango luke. Pertsona horiek lokalizatuta ditugunok emango genukeen zerrenda dinamikoa; horrela, elikagaiak beren auzoan bertan jaso ahal izango litzateke, bizilagunek supermerkatuara joatean egiten duten bezala, lekuz aldatu behar izan gabe.

**Komunikazioa.** Atzo Radio Euskadiko *Faktoria* saioan hitz egin genuen.

4. buletina sareetan eta hedabideetan zabaldu da.

### BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionez, atzoko ekarpenekin jada 115 pertsona dira bost egunetan 6.177 € sartu dituztenak.

Ostalarien partetik egunero jasotzen dugun laguntzari dagokionez, Gandarias eta Pandoraren eguneroko ekarpenak jarraitzen du. Atzo aurrez prestatutako janaria ekarri zuen pertsona batek komentario hau bidali zigun gero: *Atsaldean Tánitekin egon naiz egoitzan Oso hunkigarria izan da neretzat. Profil ezberdineke jendea pasa da janari bila. Bik bertan zerbait jan dute. Aurrez aurre esker ona jasotzea la ostia izan da!!*

Atzo ere Antzara tabernaren ekarpen garrantzitsua jaso genuen. Atzo Oialume sagardotegiaren ekarpena aipatu genuen; Oialume Zar da haren erreferentzia osoa.

Mugikorrek behar ditugu oraindik ere.

Eskerrik asko arnasa hartu ahal izateko ezinbestekoa den herritarren inplikazio gero eta handiago honengatik.

### Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

**Kontaktua:** redacogidaciudadana@gmail.com 672 95 20 66 / 675 71 53 15

**Ekarpenak:** cc ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**